

Leitzararien Etxeak ateari ireki eta 2024 denboraldirako ekoturismo eskaintza indartu du

Aste Santuan (martxoaren 23etik apirilaren 7ra), zentroa egunero egongo da zabalik, 10:30etik 18:30etara bitartean.

Leitzarari Etxeak 2024rako natura turismo eskaintza berri eta erakargarriekin ekingo dio bere jarduerari. 2024ko martxoaz geroztik, zentroak zerbitzu pertsonalizatuak eskainiko dizkie Leitzarari bailarara hurbiltzen diren pertsoneri, baita informazio turistikoa eman ere.

Aste Santuan:egunero emango da zerbitzua (martxoaren 23tik apirilak 7ra bitarte) eta apirila eta maiatzean asteburuetan funtzionatuko du, 10:30-18:30 ordutegiarekin.

Eskaintzen dituen zerbitzuak eta jarduerak

-BIZIKLETEN ALOKAIRUA: Leitzarari Etxea Leitzarango bide berdeari buruzko erreferentzia eta informazio gunea izango da, eta bailarako bidezidorrei edo Andoaingo udalerrinari buruzko informazioa eskainiko du. Bizikletak garbitzeko zerbitzua, konponketak egiteko gunea eta BTT/MTB bizikletak alokatzeko zerbitzua (ohikoak edo elektrikoak) izango ditu.

Esperientzia gidatuak:

-FERRATA BIDEA: Aurten ere ferrata bideko altuerazko ibilbide interpretatu gidatua izango da proposamen nagusietako bat. Bisita gidatu bat da, eta, aldi berean, ferrata-bidea egiten da. Esperientzia sensoriala da, eta Leitzarango bailara eta haren berezitasunak beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera ematen du. Ekintza gida batek lagunduta egiten da eta talde txikitan (gehienez 5 pertsona talde bakoitzeko). Aldez aurretik online erreserbatu ahal izango da webgunetik. 35€-ko tarifa estandarra izango du, eta 14€-ko tarifa berezia andoaindarrentzat.

-ORIENTAZIO ZIRKUITUAK: Hiru zailtasun maila ezberdinak daude bisitarien eskura beraz, tipologia guztietako bisitariari zuzendutako jardura da (familiak, koadrilak, taldeak). Bisitarien Etxean ematen den mapa baten bidez, bailarako txoko ezberdinak modu atsegina eta dibertigarrian ezagutarazten dira. Mapan dauden argibideak jarraituta, adierazitako balizak aurkitu beharko dituzue ahalik eta denbora laburrenean.

-BISITA GIDATU TEMATIZATUAK OINEZ ETA BIZIKLETAZ: bisita gidatuak eskainiko dira Leitzarango bide berdetik eta bailarako bidezidorretatik. Bisita hauek tematizatuak izango dira: fauna, flora, dantza, ohiturak, industria, mitologia.

Informazio guztia www.leitzarari-andoain.eus webgunean edo 943300920 telefonoan emango da. Andoaingo Udalak "Leitzarari bailaraz gozatzerari" gonbidatzen ditu andoaindar guztiak eta datozen egunetan bisitatzen gaituzten pertsonak, leku natural hau baldintza onetan mantentzea guztion ardura dela gogoraraziz.